# EL PLAN DEL PIRINEO EN MARCHA PIRINIOKO PLANA MARTXAN

LABURPEN EXEKUTIBOA ETA 2021eko PLANA

# AURKIBIDEA

## Tabla de contenido

1. AURREKARIAK ..... 3

2. TESTUINGURUA ETA DATUAK ..... 4

3. GOBERNANTZA SISTEMAREN FUNTZIONAMENDUA ..... 5

4. EKINTZAK SEKTOREKA ..... 7

5.- KOMUNIKAZIO PLANA ..... 18

6.- GAUZATZE ADIERAZLEAK ..... 20

7.- 2020ko AURREKONTUA/2021erako AURREIKUSPENA ..... 21

# 1. AURREKARIAK

Dokumentu berriak 2020. urtean aurkeztutako Lan Planaren luzapena izan nahi du; horretan, planean diseinatutako ekintzarekin jarraitu ahal izateko bidean aurrera egiten jarraitu nahi da, planaren ezarpenean aurrera egiteko.

Dokumentu honetan, laburbilduta jaso nahi dira:

- **2020an burututako ekintzak**
- **Gauzatutako gobernantza**
- **Planaren komunikazioa**
- **2020an gauzatutako aurrekontuak eta,**
- **2021erako aurreikuspena, dagokion aurrekontuarekin.**

Pirinioetako Plana lantzen hasi zenetik beretik, azpimarratu da ez dela plan estatikoa, ezta itxia ere, eta sortzen ari diren premien arabera egokitzen dela, eta, horrek dokumentu bizia, interkonektatua eta partekatua egiten du.

Dokumentu honen asmoa da 6 hilabeteko denbora-tarte horretan egindako ekintza horiek, 2020ko ekainean egindako azken batzarretik urte bereko abendura arte, eta 2021ean egin beharreko lanaren aurreikuspena jasotzea.

## 2. TESTUINGURUA ETA DATUAK

Hauek dira Plana garatzen den lurraldeari buruzko zifra garrantzitsuenetako batzuk:




Iturria: Nasuvinsa. Navarra de Suelo y Vivienda.




(Gehi Oroz-Betelu/ Orotz- Betelu: 153 biztanle y Arce/Artzi)

Pirinioetako Planaren lurralde-eremua osatzen duten udalerrien zerrenda, NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOAREN ERREFORMARI BURUZKO OTSAILAREN 4ko 4/2019 FORU LEGEAK ezarritako eskualde-maparen arabera sailkatuta.

PIRINEO: Abaurrea baja <> Abaurrepea / Aria/ Aribe / Burguete <> Auritz / Burgui <> Burgi / Erro Ezcároz <> Ezkaroze / Esparza de Salazar <> Espartza Zaraitzu / Gallués <> Galoze / Garaioa / Garde / Garralda Güesa <> Gorza / Isaba <> Izaba / Izalzu <> Itzaltzu / Jaurrieta / Navascués<> Nabaskoze / Ochagavía <> Otsagabia / Orbaizeta / Orbara / Oronz <> Orontze / Roncal <> Erronkari / Roncesvalles <> Orreaga / Sarriés <> Sartze / Urzainqui <> Urzainki / Uztárroz <> Uztarroze / Valcarlos <> Luzaide / Vidángoz <> Bidankoze Villanueva de Aezkoa <> Hiriberri. COMARCA DEL PREPIRINEO: Oroz Betelu <> Orotz-Betelu / Arce <> Artzi

## 3. GOBERNANTZA SISTEMAREN FUNTZIONAMENDUA

Planean nabarmendutako elementurik garrantzitsuenak dira:

- ✓ **Lurralde-eremua:** Pirinioetako eskualdea gehi Orotz-Betelu eta Artzibar.

- ✓ **Gaiak edo sektore-eremuak.**

  Lau sektore-batzordetan gauzatu zen. Ekintzak aitzinago zehaztu ditugu. Batzorde horiek dira:

  - Turismo jasangarria, hurbiltasuneko merkataritza eta zerbitzuak.
  - Industria, ekintzailetza eta lurralde-garapen jasangarria.
  - Abeltzaintza, nekazaritza, basogintza eta ingurumena.
  - Etxebizitza, garraioa eta azpiegiturak.

- ✓ **Sistemaren osagaiak (tartean diren erakundeak eta eragileak):**




*1. irudia. Pirinioetako Planaren eragileen eta harremanen mapa.*

**2020an**, 4 batzorde horietatik **11 lantalde** sortu dira. Horietan, onartutako planaren oinarri gisa hartu diren ekintzak adostu, eguneratu eta lehenesten dira.

Lantalde bakoitzean Pirinioetako mahaiko pertsona bat dago, dinamizatzeaz, bileraren deialdia eta gai-zerrenda egiteaz eta lurraldeko teknikariarekin batera data jartzeaz arduratzen dena.

Emaitza:

- **'GU PIRINIOA' funtzionamendu-ekosistema** paratu ba abian.
- **Bi hitzarmen sinatu dira**; batetik, Proiektu Estrategikoen Zuzendaritzarekin eta Cederna Garalur Elkartearekin (80.000 €), eta, bestetik, Nasuvinsa Lursarearekin (125.000 €). Hitzarmen horien bidez 4 lagun kontratatu dira lurraldean lan teknikoa egiteko.
- **Lurralde-mailako 27 bilira egin dira**, eta **taldea koordinatzeko 30 bilera**.

# 4. EKINTZAK SEKTOREKA

| LANTALDEA | 2020ko JARDUERAK | 2021eko AURREIKUSPENA |
|---|---|---|
| **TURISMO JASANGARRIA, HURBILTASUNEKO MERKATARITZA** | Teknikarien kontratazioa: Teknikari bat lanaldi osoarekin, GU PIRINIOA lurralde-taldean integratua.<br><br>2020an harremanak eta topaketak ezarri ziren Pirinioetako turismo-eragileekin. Gara daitezkeen hainbat proiektu interesgarri antzeman ziren: Astroturismoa, Soinu Paisaiak eta Kirol-orientazioa.<br><br>Koordinazio- eta lan-bilerak egitea Erronkari Ibarreko turismo-eragileekin, BTT Zentroaren proiektu baten inguruan.<br><br>Iratiko oihana kudeatzeari buruz batera lan egin da Zaraitzu eta Aezkoa Ibarrekin.<br><br>'EuroVelo3' ibilbidea definitu da<br><br>Pirinioetan masifikazio-eremuak identifikatu dira, eta Nafarroa Ezagutu Sarearekin lankidetzan ari gara Proiektu Estrategikoen Zuzendaritzak finantzatzen duen kudeaketan laguntzeko tresnen inguruan.<br><br>Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiaren (PEZN) 2020ko deialdiaren barnean proiektuak finantzatu dira:<br>ORBAITZETAKO UDALA eta Aezkoa Ibarreko Batzarra. Autokarabanentzako zerbitzugunea sortzeko proiektua.<br>HIRIBERRIKO UDALA. Aterpetxea sortzeko proiektua idatzi.<br>AEZKOA IBARREKO BATZAR NAGUSIA Erlan Irabia tokiko bidezidorra egokitzeko, interpretatzeko eta berriz homologatzeko proiektua idatzi.<br>ORBARAKO UDALA. Orbaran aterpetxea sortzeko proiektua idatzi.<br>ERRONKARI IBARREKO BATZARRA. BTT azterketa eta bidezidorrak garbitzeko esku-hartzea<br>GARAIOAKO UDALA. Turismo jasangarriko estrategia diseinatu<br>LUZAIDEKO UDALA. Proiektu teknikoa/Azterlana: ibilbide berdeak Luzaiden.<br><br>Merkataritzan jardunbide egokiak antzeman dira, Orotz-Beteluko landa-denda kasurako. | Eskualdeko Turismo Planaren bidez marka sortzeko eta lantzeko lehen jarraibideak.<br><br>Pirinioetako turismo-elkarteak indartu.<br>Hurbiltasuneko merkataritza turismo-elkarteetan txertatu.<br>Hiru elkarteen artean koordinatu eta elkarlanean jardun, proiektu bateratuu bat diseinatzeko.<br><br>'Euro Velo3' gauzatu<br><br>Turismo-pakete berriak diseinatu eta pakete zehatzak izanen dituzten urte-sasoiko kanpainak eskaini, potentzialtasunak eta xede-taldeak identifikatu ondoren.<br><br>Erakundeekin harremanetan jarri, autokarabanentzako aparkalekuen kokapenari buruzko asmoen berri izateko, bai ekimen publikokoak, bai pribatukoak.<br><br>Eskualdeak masifikazioa kontrolatzeko Nafarroa Ezagutu Sarearen tresnaz hornitzen aurrera egin eta lurraldean ezarri.<br><br>Baliteke Pirineos La Nuit errepikatzea<br><br>Pirinioetako erromatarren galtzadaren proiektua abian jarri<br><br>Oroz Betelu eta Nagoreko isats-urtegia |
| **Bilera-kopurua** | | |
| 2 | | |

| BATZORDEA | LANTALDEA | 2020ko JARDUERAK | 2021eko EKINTZAK |
|---|---|---|---|
| Turismo jasangarria, hurbiltasuneko merkataritza eta zerbitzuak | OSASUNA ETA GIZARTE ZERBITZUAK | Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiaren (PEZN) 2020ko deialdiaren barnean proiektuak finantzatu dira: | Erronkari ibarreko jubiloteka-eredua beste mankomunitateetara estrapolatu, partekatu eta egokitu. |
| | | AUÑAMENDI GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA - ABAURREGAINEKO UDALA: ETXEAK KONEKTATURIK. Esperientzia pilotua, arreta soziosanitarioko etxeak teknologia berrien bidez konektatzeko. | Esperientzia pilotuan sakontzen eta etxeak konektatzeko eskaintza zabaltzen jarraitu. |
| | | ERRONKARIKO UDALA Izaba, Garde, Bidankoze eta Urzainkikoekin batera. Belaunaldien arteko gune bat sortu Ibarrarentzat Erronkariko garai bateko eskolan. Prozesu parte-hartzailea. 220 proposamen jaso dira. | Prozesu parte-hartzailearekin jarraitu, erabilerak lehenetsi eta belaunaldien arteko ereduak aztertu, non interesek bat eginen duten eta adinekoentzako eguneko espazioak eskainiko diren (bisitak Artieda, Aragoi eta Oibarrera). Aezkoa Ibarrean beste eguneko zentro bat proiektatu. |
| | | OTSAGABIKO UDALA. COVID-19ko ondorioak arindu eta prebenitu. Prebentzio-neurriak hartu Otsagabiko "Valle de Salazar" egoitzan, eta Otsagabiko eta Garraldako ikastetxeetan Covid-19k eragindako aparteko garbiketa gastuak ordaindu. | Bidezidorrak adinekoentzat egokitu, eta ariketak egiteko makina batzuk paratu. |
| | | ERRONKARIKO UDALA. COVID-19rako garbiketa-materiala | Izapideak telematikoki egiteko prestakuntza eta laguntza guneak. |
| | | ARIAKO UDALA. Covid-19a arintzearekin lotutako ekintzak | |
| | | Gizarte-zerbitzuetara laguntza bila joaten diren adinekoek eta autonomoek kudeaketak erregistro elektronikoen bidez egiteko zailtasunak dituztela egiaztatu da. | Pirinioetako hiru osasun-zentroetarako pediatria-unitate bat diseinatzen lan egin (pediatra + erizaintza), Osasun Departamentuarekin koordinatuta. |
| | | Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako adinekoen premien eta bizi-kalitatea hobetzearen inguruko azterketa egin da. Azterlanak honako hauek jasotzen ditu:<br>5 helbururi erantzuten dieten 60 ekintza<br>Eta honako hauetan oinarrituta burutu da:<br>● Ikerketa dokumentala<br>● 4 eztabaida-talde: Osasun Zentroetako eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako profesionalez eta erretiratuen elkarteetako adinekoez osaturik:<br>Zaraitzu.<br>Erronkari.<br>Aezkoa, Erro, Auritz-Orreaga, Luzaide.<br>Artzi, Orotz-Betelu eta Olaldea.<br>● 12 elkarrizketa pertsonal sakon | Adinekoen azterlana lurraldera itzuli eta ekintzak lehenetsi.<br><br>Finantzaketa bilatzea. |
| | Bilera-kopurua | | |
| | 2 | | |

| BATZORDEA | LANTALDEA | 2020ko JARDUERAK | 2021eko EKINTZAK |
|---|---|---|---|
| Turismo jasangarria, hurbiltasuneko merkataritza eta zerbitzuak | **HEZKUNTZA** | PZNk finantzatutako proiektuak: | |
| | | DBHko hirugarren mailako azken zikloko UD integratua, hezkuntza-orientazioa eta Pirinioetako ekintzailetza-aukerak eta horien bideragarritasuna lotzen dituena. | Otsagabiko eskolan 2020-2021 ikasturtea abian da UDa, eta Pirinioetako gainerako ikastetxeekin partekatzen da |
| | | PEZN Nekazaritzako eta Basozaintzako LHko ikastetxearekin harremanetan jarri da Pirinioetan praktikak eskaintzeko. 'Natura Ingurunearen Aprobetxamendua eta Kontserbazioa' zikloko 2 pertsonak parte hartu dute | Zuzenketa parlamentarioak:<br>35.000 € laguntzetarako, derrigorrezkoak ez diren ikasketetarako eta LHrako garraiatutako<br>110.000 €, Pirinioetako eskualdeko eskolen gastuak ordaintzeko. (Garralda, Otsagabia, Erronkari…) |
| | | Aragoirekin lehen harremanak (Zaragozako Unibertsitatea), LANDA ERASMUS programa baloratzeko. | Pirinioetan 'LANDA ERASMUS' proiektu pilotu baterantz aurrera egin. |
| | | Hainbat arlotako enpresak identifikatu praktiketan diren ikasleak hartzeko. | |
| | | Praktiketan diren ikasleentzako beken inguruan dauden baliabideen erregistroa. | |
| | | Hezkuntza-eskaintza 18 urtera arte zabaltzeko eskaria jasoko duen txostena egin, berau Hezkuntza Departamentuari helarazteko eta Pirinioetan derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza-eskaintza zabaltzeko. | Bilera Hezkuntzarekin, Pirinioetan derrigorrezko hezkuntzaren ondoko eskaintza 18 urtera arte luzatzea eskatzeko. Pirinioetan 18 urtera arteko hezkuntza-eskaintza benetan gauzatzeko eskola-proposamen zehatza egin |
| | **Bilera-kopurua** | | |
| | 2 | | |

| BATZORDEA | LANTALDEA | 2020ko JARDUERAK | 2021eko EKINTZAK |
|---|---|---|---|
| Turismo jasangarria, hurbiltasuneko merkataritza eta zerbitzuak | **KULTURA ETA ONDAREA.** | Batzordearen lantaldea eratu, informazioa eta ibilbide-orria trukatu, 2021ean gauzatu beharreko ekintzak diseinatzen eta jasotzen hasteko. Pirinioetan ondareari dagokionez dagoen eskaintza bateratu da, eta Aribeko Aizpea haitzuloan ‘Iratiko lehenengo emakumea’ irudiaren inguruan lan egitea garrantzitsua dela irizten da. | Bi programazio desberdin proposatu dira: Pirinio Kultur eta Auñamendi Kultura jaialdia.<br>Ondare materiala eta immateriala berreskuratu. Esparru horretan, Aribeko Aizpea haitzuloko Iratiko lehenengo emakumea-ren inguruko jardunak aurreikusi dira, harpea berreskuratuz, seinaleztatuz eta dibulgazio-ekintzak eginez, historian zehar Pirinioetako emakumeari balioa nabarmentzeko. |
| | **Bilera-kopurua**<br>3 | | |
| | **EUSKARA** | Administrazio publikoetan euskara babestu eta ofizial bihurtzeko eskariak areagotu dira, eta 2021erako ibilbide-orria diseinatu da, honako osagai hauekin:<br>Tokiko herri-administrazioetan euskararen erabilerari buruzko protokolo bat landu, herritarren hizkuntza-eskubideak gero eta gehiago bermatzeko.<br>Mailakatze progresibo hori bermatu eta ahalbidetuko duen prestakuntza-plan bat landu<br>Gurasoei tresnak eman beren seme-alabekin euskaraz egiteko. Eskolan euskararen erabilera indartu. >>Euskara turismo-arloan indartu. >>Euskara zerbitzuetan indartu. >>Euskara aisian, kirol- eta kultura-jardueran bermatu. >>Garraldako Musika Eskolarentzat euskara-plan bat landu. | Tokiko administrazio publikoetako langileen kontratazioetan euskara normalizatzeko eta txertatzeko urratsak ematen joan<br>Euskararen erabilerari buruzko ordenantzak aztertu eta berrikusi, euskaldunen eskubideak bermatzeko<br>Pirinioetako administrazio publikoen itzulpengintzako teknikaria izateko beharra baloratu, eta horrela, argitalpen ofizialak elebidunak direla bermatu.<br>Euskalkien Foro bat antolatu, Pirinioetako ibarren hizkuntza-aberastasuna bistaratzeko. Pirinioetako euskarei eman behar zaien tratamenduaren inguruan sentsibilizatu eta baloratu. |
| | **Bilera-kopurua**<br>2 | | |

| BATZORDEA | LANTALDEA | 2020ko JARDUERAK | 2021eko EKINTZAK |
|---|---|---|---|
| Turismo jasangarria, hurbiltasuneko merkataritza eta zerbitzuak | BERDINTASUNA | Berdintasunari buruzko gaiak Osasunari eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Lantaldean landu dira, horien funtzionaltasuna Pirinioetako Emakumeen eta Elkarteen Sarera helarazteko asmoz, Mahaiak proposatutako ekintzetan, programetan eta proiektuetan genero-ikuspegia txertatzearen ikuskatzaile eta bermatzaile gisa. | Berdintasunerako Lantalde Teknikoa/Pirinioetako Elkarteen eta Emakumeen Sare horren definizioa eta funtzionamendua definitu eta adostu<br>Pirinioetako berdintasun-plana landu.<br>Erronkari eta Zaraitzu mailan proposatu da Pirinio osora zabaltzeko aukera. Sentsibilizazio-tresna<br>Berdintasun-planak erakunde parte-hartzaileei aurkeztu eta horien artean zabaldu.<br>Berdintasun-tekniken inguruko esperientziak Pirinioetan bizi diren antzeko errealitateetara eraman. Eginkizunak eta finantziazio-formulak berdintasun-teknikari bat edo bi kontratatzeko.<br>Abian ziren lan-ildoetan eta lan-ildo berrietan sakondu eta horiek indartu, udalbatzei bideratuta.<br>Aitzina jarraitzen dute Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren (NABI) prestakuntza-programek<br>Udaletako langile guztiei bideratutako prestakuntza<br>Herritarrak sentsibilizatu<br>Laguntza indarkeriari aurre egin behar dioten emakumeei.<br>Genero-indarkeriaren aurkako jarduera-protokoloa adostu eta abian paratu.<br>Berdintasun-planean proposatuko diren esku-hartzeak abian paratu. |
| | **Bilera-kopurua**<br>0 | | |

| BATZORDEA | LANTALDEA | 2020ko JARDUERAK | 2021eko EKINTZAK |
|---|---|---|---|
| INDUSTRIA, EKINTZAILETZA ETA LURRALDE-GARAPEN JASANGARRIA | INDUSTRIA, EKINTZAILETZA ETA LGJ | Nafarroako udalek enpresa autonomoei laguntzeko burututako ekintzak bildu, Pirinioetan aplikatu ahal izanen diren jardunbide egokien inspirazio gisa. | Nafarroa Ekintzailea plataformaren bidez eskaintzen diren negozio-erreleborako baliabideak ezagutarazi: https://www.navarraemprende.com/servicios/bolsa-de-negocios-y-actividades-publicas/ |
| | | Batzordean lan egitea enplegu-poltsa bat sortzeko, bertatik Pirinioetako enpresa autonomoen eta lan-eskatzaileen beharrak kudeatzeko. | Ixteko arriskuan dauden negozioak identifikatu eta belaunaldi-erreleborantz aurrera egin, eta Cederna Garalur Elkarteak egindako lana osatu<br>Proiektu pilotua gauzatu: 'Enplegu-poltsa' plataforma. Plataforma telematikoa garatzen amaitu. Kudeaketa-eredua zehaztu. Enplegu-poltsa komunikatzeko eta horiek erabiltzeko modurik onena aztertu. Martxan paratzeko planteamendua. |
| | | Pirinioetako coworking guneak sortu: Kontaktuak Otsagabiko eta Ezkarozeko udalekin, hauek Nasuvinsaren esku paratu dituzte antzinako nabeak horiek Coworking bihurtzeko:<br>Otsagabiko Estación Patatera coworking gisa birgaitzeko memoria idatzi. | Otsagabian eta Ezkarozen obrak egin coworkingak martxan jartzeko. |
| | | Coworking-lanak hasi Ariben. | Abaurregaineko patatera-nabea egokitu ekonomia-jarduerarako eta enplegua sortzeko. |
| | | Coworking berrien albisteak zabaltzen eta horietan instalatzeko interesa duten pertsonekin | Enpresak dinamizatzeko eta poligonoetara erakartzeko lanetan aurrera egin. |
| | | Aldizkako barne-bilerak Proiektu Estrategikoen Zuzendaritzarekin, Nasuvinsarekin eta Cederna Garalur Elkartearekin, coworking-espazioak martxan jartzen aurrerapausoak emateko | Ekintzailetza babesteko proposamenak aztertu udalen eta/edo ibarretako batzarren bidez |
| | | Galdetegia diseinatu, espazioen eskaera eta tipologia eta industria-lurzorua identifikatzeko | Lurraldera enplegu jasangarria erakarri: enpresak lurraldera erakartzeko azterketa eta plangintza. Pirinioetako baliabide propioen balioa nabarmentzeko dokumentua. Lankidetza-bideak sustatu toki-erakundeekin, Nasuvinsarekin, Sodenarekin eta Nafarroako Gobernuarekin, gure lurraldea enpresa-erakargarritasuneko leku bihurtzeko. |
| | | Proiektu Estrategikoen Zuzendaritzak babestutako proiektua: Ekintzailetza Poloa abian jartzeko diagnostikoa eta ekintza-plana, honako hauek barnean hartuta: harrera-plana eta enpresen komunitate eragilea eta lankidetza-ingurunea. | Ekintzailetza-polo bat abian paratu. |
| | | Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiaren (PEZN) 2020ko deialdiaren barnean proiektuak finantzatu dira:<br>ARTZIBARKO UDALA eta Lakabeko Kontzejua. Landa-garapeneko eredu integratzaile eta jasangarri bat ezarri bailararako. | Pirinioetako mahaiko hezkuntza-taldearekin eta lurraldeko ikastetxeekin lankidetzan jardun, eskoletako orientazio goiztiarreko programaren inguruan etorkizunerako helburuak ezartzeko. |
| | | Banda zabala hedatu Pirinioetan. Bilerak Zuzendaritzarekin, Nafarroako Bigarren Digitalizazio Plana gauzatzeko plana aztertzeko. Lurraldean hedatzeko interesa duten telekomunikazio-konpainiekin harremanetan jarri; udalerri batzuetako konexio-ezari irtenbidea emateko eredu iragankorrak baloratzeko irizpideak. Lurraldean banda zabala hedatzen interesa duten telekomunikazio konpainiekin harremanetan paratu, eredu iragankorrak baloratzeko irizpideak, herri batzuetan konexiorik eza konpontzen aurrerapausoak emateko. | Banda zabala Erronkarira, Izizeko industrialdera eta Orreagara zabaldu. |
| | **Bilera-kopurua** | | |
| | 4 | | |

| BATZORDEA | LANTALDEA | 2020ko JARDUERAK | 2021eko EKINTZAK |
|---|---|---|---|
| ETXEBIZITZA, GARRAIOA ETA AZPIEGITURAK | ETXEBIZITZA, GARRAIOA ETA AZPIEGITURAK | Erabilgarri dauden etxebizitza publikoak eguneratu: non, azalera, etxebizitza-mota eta irisgarritasun-maila. | Irizpideak definitu eta zaharberritzeko obrak gauzatu Pirinioetako etxebizitza publikoetan |
| | | Herrietan erabiltzen ez diren etxebizitza pribatuen kopuruari, egoerari eta tipologiari buruzko informazioa bildu. | Alokairuari lotutako bigarren etxebizitzetarako laguntzak eskuratzeko irizpideei buruzko informazioa helarazi herritarrei. Pirinioetan alokairuko etxebizitzen eskaintza ahalbidetuko eta erraztuko duten beste formula batzuk bilatu eta aztertu |
| | | Ezkarozen partaidetza-foro bat antolatu eta gauzatu, etxebizitzak birgaitzeko Legearen erreformaren inguruan kontsulta-prozesua hobetzeko proposamenak egiteko. (142/2004 Foru Dekretua, martxoaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitzen gutxieneko bizigarritasun-baldintzak arautzen dituena). Ekarpenak jasotzen zituen dokumentua aurkeztu zen Etxebizitza zerbitzuan. | Nafarroako Garraioaren Plan Integralaren (NGPI) jarraipena |
| | | 13 memoria tekniko eta 3 txosten idatzi dira, etorkizunean etxebizitza publikoak birgaitzeko; Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiak (PEZN) finantzatu ditu memoria eta txosten horiek. | Eskatu ahalako taxiaren erabilgarritasuna eta beharra baloratu eta aztertu, herrien artean mugitzeko. Adinekoak topaketa-zentroetara eta gazteak kultura-, kirol- edo jolas-jardueretara mugitzearekin lotutako pilotu posibleak. (COVID neurriak eta murrizketak baloratu) |
| | | Gazteek etxebizitzak birgaitzeko programa pilotua garatu. | Etxebizitza birgaitzeko proiektu pilotua gauzatu, gazteen parte-hartzearekin eta birgaitzeko formula berriekin. |
| | | proiektuak finantzatu dira:<br>GARRALDAKO UDALA. Energia Fotovoltaikoari buruzko proiektua<br>ERROIBARKO UDALETXEA. Energia berriztagarriak garatu eta ezarri<br>ESPARTZA ZARAITZUKO UDALA. Energia-efizientzia. 2012/27/EB Europako Zuzentarauaren helburuak bete<br>ARIBEKO UDALA. Administrazio elektronikoa abian paratu<br>ZARAITZU IBARREKO BATZARRA. Irratiaren bideragarritasun teknikoaren inguruko azterketa | |
| | | Mugikortasun kolaboratiboko APPa diseinatu eta abian paratu: gaur arte 124 lagunek deskargatu dute aplikazioa; 99k gaztelaniaz eta 25ek euskaraz. Aplikazioaren erabilerari dagokionez, adin guztietakoak dira, eta badirudi emakumeek gehiago erabiltzen dutela | Mugikortasun kolaboratiboko aplikazioarekin jarraitu; gehien eskatzen diren erabilerak, profilak eta ibilbideak aztertu eta baloratu |
| | **Bilera-kopurua** | | |
| | 4 | | |

| BATZORDEA | LANTALDEA | 2020ko JARDUERAK | 2021eko EKINTZAK |
|---|---|---|---|
| ABELTZAINTZA, NEKAZARITZA, BASOGINTZA eta INGURUMENA | BASOGINTZA ETA INGURUMENA | Parlamentuko txostenean sektorearen beharrak gehitu, eta nekazaritzako eta abeltzaintzako batzorde independente gisa abian jarri<br><br>Nafarroako Baso Planari eta Aholku Batzordea eratzeari buruz Ingurumen Departamentuari egindako eskaera<br><br>2021ean gauzatuko diren 3 ekintza lehenetsi<br><br>Elkarrizketak Zaraitzu Ibarreko Batzarrarekin eta Ezkarozeko Udalarekin, biomasa-iturrietan oinarritutako eraikin publikoetarako beroko barruti-sare bat diseinatzeko | Honako ekintza hauek lehenetsi dira:<br><br>Pirinioetako produktu naturalak (perretxikoak, basoko fruituak, patxaranak eta abar) eraldatzeko aukera ematen duten forma juridikoak eta/edo arau-formak aztertu eta analizatu. Ehizakiak eraldatzeko lantegiak, eta abar.<br><br>Produktu horiek ekoizten eta eraldatzen ekimen ekintzaileak abian jartzen lagundu<br><br>Sektore honetan sartzea erraztuko duten negozio-eredu kooperatibo eta kolektiboak ezagutarazi eta sustatu<br><br>Pirinioetako baso-masak sortzen dituen kanpo-eraginei buruzko azterketa bat egin, ingurumen-kanonaren ideia oinarritzat hartuta. Pilotu baten proiekzioa<br><br>Baso-kudeaketa jasangarriko ereduei buruzko esperientziak eta trukeak berrikusi<br><br>Proiektu- eta bideragarritasun-azterketa |
| | **Bilera-kopurua** | | |
| | 2 | | |

| BATZORDEA | LANTALDEA | 2020ko JARDUERAK | 2021eko EKINTZAK |
|---|---|---|---|
| ABELTZAINTZA, NEKAZARITZA, BASOGINTZA eta INGURUMENA | ABELTZAINTZA ETA NEKAZARITZA | Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiaren 2020ko deialdiaren barnean proiektuak finantzatu dira:<br>ESPARTZA ZARAITZUKO ETA BURGIKO UDALAK. Nafarroako Pirinioetako nekazaritzako elikagaien sistema<br>UZTARROZKO ETA ORONTZEKO UDALAK. Gizartean eztabaida ireki: Nekazaritza Politika Batuaren funtzionamendurako irizpideak eta NPBak Pirinioetako biztanleengan izanen duen eragina aztertze aldera<br>EZKA-ZARAITZU KO HIRI HONDAKIN SOLIDOEN MANKOMUNITATEA. Konpostatze-proiektua, Ezka-Zaraitzu - 2019<br>Proiektu Estrategikoen Zuzendaritzak babestutako proiektua:<br>INTIAk lehen sektoreak Pirinioetan duen egoera aztertzen du: ekoizleen zerrenda; ekoizpen-motak; sektorearen adina eta nola heldu belaunaldi-erreleboari. Sektorean sartu berriak; premiak eta proposamenak. Udal-ordenantzak; herri-lurren erabilerarekin, bazka-planarekin... loturik<br>Belaunaldi-erreleboari buruzko jardunaldia: belaunaldi-erreleboa lurraldearentzako erronka eta nahitaezkoa apustua<br>Lakabeko finkaren ingurumen-inpaktuaren azterketa, finkan hiri-hondakin solidoak konpostatzeko esperientzia pilotuaren inguruan, finkak ongarritzeko eta dibertsifikatzeko.<br>Sektorearentzat interesekoak diren eskualdeko nahiz Europako proiektuei buruzko informazioa bildu.<br>Ekonomia zirkularreko proiektuak identifikatu (artilearekin lotuta) | Tokiko elikadura osasungarriarekin lotura duten ekoizpen-, banaketa- eta merkaturatze-zirkuitu laburrak barne hartuko dituzten proposamen eta proiektu zirkularrei jarraipena eman, horiek sustatu eta babestu<br>Herritarrek parte hartzeko informazio- eta kontsulta-kanpainak sustatu, antolatu eta horietan parte hartu, NPB berriarekin eta horrek landa-garapenean izanen duen eraginarekin lotutako proposamenak aztertzeko.<br>INTIAko langileak Gu PIRINIOA taldean sartuko dira. INTIAri egindako enkarguaren emaitzen ondoren egindako ibilbide-orriko ekintzak gauzatzen hasi.<br>Lurrari lotutako abeltzaintza- eta/edo nekazaritza-ekoizpenerako lurraren erabilera bultzatuko eta erraztuko duten udal-ordenantzen beharrezkoak diren aldaketak egiteko aurrerapausoak eman<br>Hiri-hondakin solidoen Mankomunitateak proposatutako eredu zirkular dibertsifikatzailea komunikatu eta zabaldu<br>Elikagaien birlokalizazio-ereduetan aurrera egin, Pirinioetan irismena eta garapena duten eta zonaldean abian dauden beste proiektu batzuekin koordinatuta (Jakiak Ehuntzen, lurraldera egokitutako elikaduraren gobernantza-eredu berriak esploratuz).<br>Beste proiektu batzuekiko sinergietan aurrerapausoak eman, Pirinioetan ekintzak ezartze aldera.<br>Ekonomia zirkularreko proiektu pilotuak abian paratzeko finantziazioa bilatu.<br>Elikagaiak artisauki eraldatzeko azpiegituren ereduak eta eskariak aztertu, proiektu pilotu bat abian jartzeko. |
| | **Bilera-kopurua** | | |
| | 4 | | |

| BATZORDEA | LANTALDEA | 2020ko JARDUERAK | 2021eko EKINTZAK |
|---|---|---|---|
| | **DESPOPULATZEA** | Batzordea beste lantalde gisa eratu, eta 2021ean gauzatzeko lehentasunak ezarri. | Eraitsitako etxebizitzen eta abandonatutako herrien egoera baloratzeko, eta joera geldiarazteko ordenantzak indartzeko laguntza teknikoa. |
| | | | Udalei egoera horiek kudeatzeko tresnak emateko formulak bilatzeko eta birgaitzeko etxebizitza publikoak izateko laguntza juridikoa. |
| | | | Udalei ordenantzak eguneratzen edo berriak egiten lagundu, etxebizitzak bertan behera uzteko gaietan esku hartu ahal izateko; eraikinei, lurraldeei, paisaiari... dagokienez. |
| | | | Udalei hirigintza-planak betetzen lagundu, jasangarritasun-irizpideen arabera |
| | **Bilera-kopurua** | | |
| | 2 | | |

# 5.- KOMUNIKAZIO PLANA

- ✓ Urte horretan GU PIRINIOA web-orrialdea jarri dugu abian.

  https://www.gupirinioa.eus/




- ✓ Nafarroako Gobernuaren prentsa-oharrak:
  - 2020ko ekaina. Lurraldeko taldea sortu eta batzarra ekainean.
  - 2020ko abuztua. Dirulaguntzetarako deialdia.
  - 2020ko urria. Dirulaguntzak ematea
  - 2020ko azaroa. Lehen sektoreari buruzko jardunaldia.
  - 2020ko abendua. Pirnioetako web-orrialdearen aurkezpena.

- ✓ Tokiko prentsa-oharrak.
  - Posta bidalketak. 2020ko azaroa. Lehen sektoreari buruzko jardunaldia.
  - 2020ko urte-amaiera. Kudea>go! 2021 martxan paratu da.

- ✓ Sare sozialen kudeaketa: Twiter eta Facebook diseinatu eta abian paratu.

- ✓ 'Pirinioetako Plana Martxan' aurkezteko 4 eztabaida-leku:

  - 2020ko martxoaren 3a, Erronkari: Bertaratutakoak: 25 pertsona.
  - Aribe: 2020ko martxoaren 5a. Bertaratutakoak: 22 pertsona.
  - Ezkaroze: 2020ko martxoaren 10a. Bertaratutakoak: 20 pertsona.

- Auritz: martxoaren 13an bertan behera geratu zen COVIDaren ondorioz, eta urrian egin zen. Bertaratutakoak: 30 pertsona.

Planari egindako ekarpenak jaso ziren, baita bertaratutakoek azaldutako zalantzak ere.

✓ Komunikazio-batzorde bat sortu da, eta horretan parte hartuko dute Pirinioetako Mahaiko presidenteak, proiektu estrategikoen zuzendaritzako teknikari batek eta bi pertsonak (Cederna Garalur eta Lursareako ordezkari bana). Helburua: burutu beharreko ekintzak antolatu, eta komunikazio-planaren ibilbide-orria koordinatu eta zabaldu.

✓ 2020ko oroitidazkia landu eta Mendixut tokiko aldizkarien argitara eman.



EL POLO DE EMPRENDIMIENTO DEL PIRINEO

Impulso colectivo al emprendimiento

# 6.- GAUZATZE ADIERAZLEAK

| GAUZATZE ADIERAZLEAK | NEURKETA UNITATEA | |
|---|---|---|
| EDUKIA: | | |
| Identifikatutako esku-hartze eremuen kopurua (azpisektoreak batzorde bakoitzaren barnean) | Lantaldeak mahaian | 1. TURISMO JASANGARRIA, HURBILTASUNEKO MERKATARITZA |
| | | 2. EUSKARA |
| | | 3. KULTURA ETA ONDAREA |
| | | 4. OSASUNA ETA GIZARTE ZERBITZUAK |
| | | 5. HEZKUNTZA |
| | | 6. INDUSTRIA, EKINTZAILETZA ETA LGJ |
| | | 7. LEHEN SEKTOREA |
| | | 8. BASOGINTZA ETA INGURUMENA |
| | | 9. DESPOPULAZIOA |
| | | 1O. BERDINTASUNA |
| | | 11. ETXEBIZITZA, AZPIEGITURA ETA GARRAIOA |
| Identifikatutako eskaera-kopurua | Eskaerak | 17 GUZTIRA |
| | | Toki-erakundeak: 4 |
| | | Partikularrak: 7 |
| | | MAHAIKO LANTALDEENAK: 6 |
| Identifikatutako eskaera-kopurua arloka | Eskaerak | ETXEBIZITZA, AZPIEGITURA ETA GARRAIOA: 2 |
| | | KULTURA ETA ONDAREA: 3 |
| | | HEZKUNTZA: 2 |
| | | DESPOPULAZIOA: 1 |
| | | TURISMO JASANGARRIA ETA HURBILTASUNEKO MERKATARITZA: 6 |
| | | LEHEN SEKTOREA: 2 |
| | | INDUSTRIA, EKINTZAILETZA ETA LGJ: 1 |
| Eskaera bakoitzerako planteatutako proposamen/esku-hartze/soluzio-kopurua | Proposamenak | GUZTIRA 6 |
| | | 1 MUGIKORTASUNAREKIN lotura, gauzatze bidean |
| | | 1 lehen sektorearekin lotua, lehen sektoreko lantaldea aztertzen ari dena |
| | | 1 ondarearekin eta kulturarekin lotua; onartua eta plangintza-fasean |
| | | 1 turismoarekin lotura; gauzatu gabea COVID-19aren ondorioz |
| | | 2 hezkuntzarekin lotuak; bi lan-dokumentutan gauzatua Hezkuntzari pasatzeko |
| PARTE-HARTZEA | | |
| Mahaian parte hartzen duten toki-erakundeen kopurua eta lantaldeak | Ibarretako Batzarrak | 3 (Zaraitzu, Erronkari, Aezkoa) |
| | Gizarte-zerbitzuen Mankomunitatea | 2 (Auñamendi, Zaraitzu, Erronkari) |
| | Iratiko Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea | 1 (Irati HHS) |
| | Udalak | 6 (Orotz, Erronkari, Otsagabia, Auritz, Garralda, Burgi, Artzi) |
| | Kontzejuak | 0 |
| | Osasun-etxeak | 2 |
| | Enpresa publikoa | 1 |
| | Ikastetxeak | 3 (Otsagabia, Garralda, Erronkari) |
| | Farmaziak | 1 (Ezkaroze) |
| Tartean diren elkarte-kopurua (turismoa) kultura? Emakumea? | Turismo-arloko elkarteak | 3 (Irati Orreaga, Iratialdea, Erronkari) |
| | Kultur erakundeak edo bestelakoak | 4 (Auñak, AEK, Zerika, Erronkarizar) |
| | Emakumeen elkarteak | 5 (Xaiki, Gaztelu, Laurentxi, Gure Aizpea eta lakorri ) |
| | Turismo-bulegoak | 3 (Orreaga, Otsagabia, Erronkari) |
| Pirinioetako mahaiko partaideak | Pertsonak | 15 |
| Partaideak batzordeetako bakoitzean | 1. TURISMO JASANGARRIA, HURBILTASUNEKO MERKATARITZA | 19 |
| | 2. EUSKARA | 6 |
| | 3. KULTURA ETA ONDAREA | 8 |
| | 4. OSASUNA ETA GIZARTE ZERBITZUAK | 11 |
| | 5. HEZKUNTZA | 9 |
| | 6. INDUSTRIA, EKINTZAILETZA ETA LGJ | 5 |
| | 7. LEHEN SEKTOREA | 7 |
| | 8. BASOGINTZA ETA INGURUMENA | 4 |
| | 9. DESPOPULAZIOA | 4 |
| | 10. ETXEBIZITZA, AZPIEGITURA ETA GARRAIOA | 6 |
| Irekitako foroetako partaideak; aurkezpena, bertaratzeari buruzko datuak (Erronkari, Ezkaroze, Aribe eta Burgete) | Pertsonak | 66 EMAKUME ETA 47 GIZON |

GU PIRINIOA
SOMOS PIRINEO

# 7.- 2020ko AURREKONTUA/2021erako AURREIKUSPENA

| PIRINIOETARAKO PROIEKTU ESTRATEGIKOEN ZUZENDARITZA NAGUSIAREN AURREKONTUA: | |
|---|---|
| Pirinioetako Planaren ekintzak | 90.000,00 |
| (E) Enkargua INTIAri (jangela komunitarioak) | 35.000,00 |
| Suspertu Plana NASUVINSA-LURSAREAri transferentzia: lurraldeko proiektu estrategikoen garapena | 122.300,00 |
| Suspertu Plana Pirinioetako proiektuetarako dirulaguntzak (toki-erakundeak) | 90.000,00 |
| Suspertu Plana NASUVINSA-LURSAREAri transferentzia. Bizimugi Eurovelo 3. POCTEFA | 117.539,00 |
| Suspertu Plana Hitzarmena Cederna Garalur Elkartearekin Pirinioetako Plana | 100.000,00 |
| (E)Suspertu Plana Artzibarko jauregiaren ingurua eta Nagore urtegia egokitzeko esku-hartzeak | 31.616,00 |
| Suspertu Plana Pirinioetako inbertsio-proiektuetarako dirulaguntzak (toki-erakundeak) | 600.000,00 |
| Suspertu Plana Pirinioetako Planeko berrikuntzarako ekintzailetza-proiektuetarako dirulaguntzak | 65.000,00 |
| | |
| **Hainbat Departamenturen Pirinioetarako araudiak** | |
| (E)Garaioako udaletxea birgaitu | 50.000,00 |
| (E)Nagoreko urtegiko ura edangarri bihurtzeko esku-hartzea -Artzibar | 36.833,00 |
| (E)Hitzarmena Garraldako Udalarekin. Plazari gizarte-erabilera emateko egokitzapen-jarduerak | 15.000,00 |
| (E)Hitzarmena Zaraitzuko Batzarrarekin. Esku-hartzeak Erremendian | 40.000,00 |
| (E) Luzaideko Erramunto baserrirako bidea egokitu | 10.000,00 |
| (E) Luzaideko Arretxe pilotaleku estalia konpondu | 20.000,00 |
| | |
| **NAFARROAKO GOBERNUKO BESTE DEPARTAMENTU BATZUEN AURREKONTUA PIRINIOETARAKO** | |
| (E) Transferentziak Erronkari, Otsagabi, Garralda, Auritz, Erro, Aurizberri, Luzaideko toki-erakundeei; zentro publikoen funtzion | 110.000,00 |
| (E) Pirinioetako ibarretako batxilergoko edo LHko ikasleak Iruñeko edo Iruñerriko ikastetxeetara garraiatzeko laguntzak | 35.000,00 |
| Suspertu Plana NA-2131 eskola-ibilbidea eraiki Erronkarin | 263.000,00 |
| Suspertu Plana Enkargua NASERTIC-i. Nafarroako Banda Zabalaren Plan: korporatiboa | 2.105.420,00 |
| INTIAri nekargua, Pirinioetako Plan Estrategikorako | 100.000,00 |
| ‘Pirinioetako patata’ marka erregistratua lortu | 40.000,00 |